


Akta/Kronika.

Lezon Energia Komunitatea Eratzeko Prozesua

7. saio irekia.

Udaleko Pleno Aretoa [2025/03/03]



1.- Deskribapena

1.1.- Oinarrizko informazioa.

- **Data:** Martxoak 3, astelehena.
- **Saioaren iraupena:** 2 ordu.
- **Ordutegia:** 18:00etatik 20:00etara.
- **Lekua:** Udaletxeko Pleno Aretoa
- **Antolatzaileak:** Iratzerri eta Lezoko udala.
- **Dinamizazio taldea:**
 - Iratzerri

1.3.- Parte-hartzaileak: Lezoko bizilagunak norbanako bezala eta herri eragileak

- **Guztira:** 12 pertsona.

- **Genero/sexu banaketa:**

- Emakumeak: 3

- Gizonak: 9

Adinaren arabera:

< 19 urte: 0

20 – 29 urte: 1

30 – 39 urte: 3

40 – 49 urte: 1

50 – 59 urte: 5

60 – 69 urte: 2

70 – 79 urte: 0

2.- Saioaren helburuak:

1. Lantaldeak osatzea eta egonkortzea
2. Lantaldeen lan saioen jarraipena egitea
3. Talde orokorraren xedeak eta estrategiak bateratzea. Beste energia komunitateekin izandako harremanekin zalantzak argitzea

2.- Edukiak

2.1.- Iratzerriren azalpenak

Ekaitzek bileraren nondik norakoak azaldu ditu. Aurreko saioaren balorazioa egin du eta etorri ez direnentzako laburpentxo bat. Saio honetan ez da Oier izango bajaran dagoelako istripu baten ondorioz. Hurrengo saiorako alta jaso izatea espero denez Energia Txirotasuna gaiari helduko diogu.

2.2.- Parte hartzaileen aurkezpena eta aurreko saiotik hona eginiko lanak laburbiltzeko ariketa egin dugu.

- Udalarekin biltzeko eskaera egina eta udal komunikazio sarea baliatzeko aukerak lantzea Amaia Resenderek. Bileraren amaieran Martxoak 13an izatea proposatu digu Jon Legorburuk.
- Komunikazio taldearen lehen bilera: Komunikazio sareak eta datu biltegia eratu dira eta kanpainaren ardatzak finkatzen hasi dira.
- Talde Juridikoak inguruko Energia Komunitateen estatutuen arteko ezberdintasun taula prestatu du
- Komunikazio taldeak, Lezo Jaizkibel Mendi lasterketan 2 pankartak jarri ziren plazan: "Aupa Lezo! 11. Edizioa a zer energia!" - "Energia komunitatea martxan"
- Inguruko Energia Komunitateekin biltzea eta zalantzak argitzea: Ekiherri eta Sortalderekin bildu pasa den astean eta Argitturirekin hitzordua finkatu da aste honetarako
- Proiektuak taldekoak autokontsumoan formatzen jarraitu dute eta sorkuntza proiektuetarako komertzial lanetan aritu dira, harremanak Instituta, industrialdeko enpresak... izan direlarik.

3.- Talde lana eta bat egitea.

Bilera hasieran jende gutxiago ginenez taldetan banatu beharrean denok elkarrekin biltzea erabakai dugu. Modu honetan azkeneko saioan sortu ziren zalantzak argitzeari ekin diogu. Sortalderekin eta Ekiherriekin izandako bileren xehetasunak azaldu dira horretarako. Ondoren Komunikazio eta Proiektu taldeek egindako lanetan sakondu da. Amaieran herriko uren inguruko kezka adierazi du Mikel Mitxelenak eta ez ahazteko eskatu du. Jarraian udalaren urteetako "utzikeria" salatu du batzarra pixka bat nahastu delarik, baina amaieran hurrengo saiorako ekinbideak adostu dira:

- Komunikazio taldeak "EBK Lezo"-ren balizko aurkezpena prestatuko du, bere kapainaren kronologia azalduz gauzak argiago ikusi eta lurreratzen laguntzeko.
- Udalarekin eta Argitturirekin izango diren harremanak jasoko dira beste gainontzekoeekin bateratuz

konparazio taula bat prestatuko da.

- Proiektuak bilatzen eta horretarako harremanak egiten jarraituko da.

5.- Hurrengo pausoak

Martxoak 24 astelehenean, hiru aste barru alegia, elkartzea erabaki da. **18:00etik 20:00etara**. Modu honetan lantaldeak elkartzeko denbora izango da etxeko lanak egiteko, ideiak eta gaiak jorratzeko.

Hurrengo bilerara Oier Etxebarriak ekarriko duen gaia **Energia Pobrezia** izango da.

Tokia zehaztuko da deialdiarekin batera, baina printzipioz Euskara Kultura aretoan izango litzateke.